

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

“Arabako Hiri Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana 2017-2030” Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak sustatzen du, indarrean den 3/1998 Lege Orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babestekoak, lurralde historikoetako foru organoei hiri hondakinen arloan esleitzen dizkien eskumenak baliatuz

IEE Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren ohiko prozeduraren eraginpean izapidetu behar da. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, arautzen du aipatutako prozedura; urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, berriz, plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen du.

IEE horren esparruan, plan horren zirriborroa eta haren “Hasierako Agiri Estrategikoa” “kontsulta” gai jarri zaie eragindako administrazio publikoei eta interesdunei. 2018ko martxoaren 13ko Foru Agindu bidez, hasierako onarpena eman zaio “Arabako Hiri Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana 2017-2030” izenekoaren proiektuari, eta Ingurumen Azterlan Estrategikoarekin batera, jendaurreko informazio aldiari jarri da.

Plan proiektuaren agiriak eta Ingurumen Azterlan Estrategikoa <http://www.pru2030araba.eus/documentos> helbidean daude eskuragarri “Planaren bertsioak eta izapidetutako beste agiri batzuk/ Plan proiektua” atalean.

Interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz), 45 egun baliioduneko epean, iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzari zuzenduko zaizkio.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 13a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO